

Indiatik, meditazioari jarriak

I

Dena kaosa denean
zu, mundua, mundua, zu
tarte bat hartu ezazu
eta lurraren gainean
eseri atsedenean,
zure gogo itzali
betazalekin estali
begiak, sakon arnastu,
mundurik badenik ahaztu
eta begiak irauli.



II

Dimentsioak apurtu:
espazio infinitu
baten erdian sentitu,
puntu txiki bat bihurtu;
ta ordulari bat urtu
kuartzozko hautsen peskizan.
Ta landare baten gisan,
–hustu zaitez pentsamenduz–
kontzientzia mantenduz–
soilik egon eta izan.

III

Mundua munduz beteta:
mundu batean bi mundu;
batak bestea urrun du.
Ez begiratu tarteka
begi batekin bat eta
bestea bestarekin
–egunak arratsarekin
ezkutaketan dihardu–
bateg lo hartu behar du
bestea esnatu dadin.

IV

Hain dira irrazionalak
mundu bateko atepak
ta errealitateak
hain dirudi erreala!
Nola sinistu itzala
dela mundu baten funtsa
dena ilusio hutsa,
–itzal txinatarren saio–
esentziaren garraio
baino ez dela gorputzal!

V

Pasa bazen iragana
helduko bada geroa
lumatu ezazu ego-a
irits ezazu nirvana.
Maldak pausua darama,
hurbildu zaitez astiro...
Ahal duzun goren igo
saiatu Buda bat sortzen
eta ez baduzu lortzen
sortu mundura berriro.

VI

Beste mundua estali
itzuli puntak orratzei
jarraitu zure lorratzei;
berriz, begiak irauli
eta mundura itzuli...
Begi bat ireki ezazu
zu, mundua, mundua, zu
dena kaosa denean...
orain zure barrenean
beste mundu bat daukazu.

DOINUA: “Nor bait bilatzen duenak
edonor aurki dezake” (dezima).

<http://www.argia.com/argia-astekaria>
helbidean, bertsoak entzungai.